

LEHENDAKARI ETA LEHENDAKARIORDEETARAKO HAUTAGAITZA BATERATUAREN EGITARUA

Iñaki Dorronsoro Plazaolak goiburutu eta ondorengo hautagaiak:

- Arabatik: Federico Verástegui Cobian
- Bizkaitik: Rosa Miren Pagola Petrirena
- Gipuzkoatik: Jose Mari Arrazola Aranzadi
- Nafarroatik: Asier Barandiaran Amarika
- Kanpoko esparrutik: Ana Isabel Ugalde Gorostiza

Eusko Ikaskuntzarako Lehendakari eta Lehendakariordeetarako¹ osatzen duten hautagai talde bateratu honek ondorengo azalpena aurkezten du Batzar Nagusira:

GURE IHARDUERARAKO PRINTZPIOAK ETA BALIOAK

Eusko Ikaskuntzaren jatorrizko amets, begitazio eta baloreak bere osotasunean gure gain hartuz, eguneroko ihardueran ondorengo oinarri eragileak gure egiten ditugu:

- Ilusioa eta baikortasuna
- Berrikuntza eta ekintzailetasuna
- Euskaltzaletasuna eta euskara
- Pertsonaren ezinbesteko balioa
- Genero ikuspegia
- Autonomia- koordinatua eta malgutasuna
- Harreman etengabeak eta gardentasuna
- Zorroztasuna
- Aniztasuna eta irekitasuna

Egun arlo guztietan bizi ari den egoera ekonomikoa modu bereziz izango du kontuan kandidatura honek. Jakin behar dugu egokitzen balia bideak, publiko zein pribatuak, eta goi arreta jarriko da Eusko Ikaskuntzak eskuratuko dituen finantzazio-lerroetan, ahalik eta etekinik handiena –kulturala zein ekonomikoa– lortzeko.

GURE JOKAERARAKO EGITARUA

Garrantzi eta lehentasun garbia duten eginkizun nagusiak zazpi ildotan laburtzen ditugu. Ildo bakoitzak ekintza multzo zabal bat bere barne hartzen du.

I. Eusko Ikaskuntza gaurko gizartean zertan den hausnartu eta ondoren garbi finkatu

1918an, testuinguru jakin batean sortu zen erakunde bat da. XXI. mendean murgilduta eta ia ehun urte betetzear dagoenean, bere zereginari begirada sakon bat eman beharrean dago. Jatorrizko testuinguru hori erabat aldatu da Euskal Herrian. Gainera, geroari gainbegiratu bat ematen badiogu, bai kultur komunitate txikienezako, baita zientzia-teknologia sistemenezako ere, hainbat erronka eta ziurgabetasun susmatu ditzakegu.

Urte guzti hauetan euskal kulturaren ikasketa, kulturaren ikerketa eta zientzia lantzen duten erakunde eta taldeen zerrenda ugartu egin da dudarik gabe. Bakoitza bere eredu edo profilararekin, baina kasu askotan bata bestearrekin gainjarriaz. Eusko Ikaskuntzak bere sorkuntzarako amets, itxaropen eta balioak galdu gabe, gune propio eta berezia aurkitu beharrean ikusten dugu.

1. Iparraldeko salbuespenarekin

Galdera nagusiak mahai gainean eta partehartze zabal baten bitartez, Saitetako bazkide guztiekin batera, erantzun eraginkorrak lehen bait lehen eraikitzea izango da lehenengo erronka.

Eta ondoren, Eusko Ikaskuntzaren egitura eredu berri horretara egokitu beharko dugu, bai gobernatze egitura eta bai kudeaketa egitura ere. Kontuan hartuta lurralde oso ezberdinak osatzen dutela garrantzia handia ematen diogu Lehendakariordeen eginkizunari. Eta tokian tokiko hurbiltasunetik abiatu behar ditugu gure aktibitateak.

Kandidatura honek kontuan izango du Lehendakariordetzatiki eraman beharreko lana. Lurralde bakoitzak adierazten duena presente edukiko da, dagozkien nolakotasun eta zehazkizunei behar bezalako erantzuna emateko. Lehendakariordeen betebeharra oso garrantzitsutzat hartzen da. Aholku Batzordeei indarra emango zaie, proiektuak bideratu ahal izateko.

Modu berezian aipatu nahi dugu Kanpo Lehendakariordetzari ematen diogun tratamendua, aurreneko aldiz baita arduraduna kanpo Euskal Kolektibitateetako kide ez dela. Hain zuzen ere, kanpoko bazkideen aholkuari segitu diogu horretarako, emaitza hobearen aldera. Kanpo euskaldunen arteko sarea sendotzea eta haiek euskal kulturara hurbiltzea, modu praktikoan parte hartuz, dira kandidatura honen xedeak.

II. Bazkidego gogotsu batek sustatutako erakunde bizi eta arin baterantz abiatu

Bazkideen jarrera aktiboa bultzatzea dugu erronketariko bat, eta horretan ez dugu etsiko, garbi baitauekagu bazkideak direla Eusko Ikaskuntzaren ezinbesteko oinarria.

Eusko Ikaskuntza bazkide multzo handi batek osatutako erakunde bat da eta beraien interes, jakinmin eta itxaropenak dira abiapuntu. Bazkide multzo hori zientzilari eta ikerlari profesionalak, enpresarioak eta enpresa profesionalak, irakasleak, langileak, gizonezkoak eta emakumezkoak, gazteak, helduak eta oso helduak, instituzioak, eta abar. osatzen dute.

Ez dugu ahaztu behar bazkidego zabal hori lurralde ezberdinetan dagoela kokatuta eta ziurrenik beraien ikuspuntu berezia izango dutela.

Bazkidegoa hedatzen dugun heinean Eusko Ikaskuntzaren ihardueraren hedapena bera ere bermatuko da. Modu proaktiboan eskaini beharko diogu euskal gizarteari Eusko Ikaskuntzako bazkide izateko aukera. Baina horretarako, Eusko Ikaskuntza eraginkor, moderno eta denentzako irekia gauzatu beharko dugu. Erronkari ilusioz helduko diogu, garbi baitugu gure Elkartea euskaldunon topagunea izan daitekeela. Aniztasun horiek kontuan hartuta bazkidegoaren hurbiltasuna derrigorrezkoa ikusten dugu.

III. Kudeaketa lantaldea indartu, motibatu eta kudeaketa sistema bat garatu

Zuzendaria, bere lantalde eta lankideak Eusko Ikaskuntzaren motor garrantzitsuak dira. Pertsona horiek helburuak, bakoitzaren zereginak, koordinaziorako tresnak, antolaketa era, kudeaketa planak, informazioa, eta beste hainbat alde garbi eduki behar dituzte. Lehendakariaren zeregina da alde guzti horiek garatzea, lan taldearen motibazioa indartzea eta hausnarketa estrategikoak eska lezakeen heinean oinarritutako kudeaketarako lan plantilla egokitzea.

Langilegoaren garrantzia kontuan edukiko dugu, beraiek baitira Elkartearen ezinbesteko zutabea. Profesionaltasunean eta ardura konpartitu-propositiboan oinarritutako kudeaketa bultzatuko dugu gure kandidaturatik. Kudeaketa eta estrategia konpartitu batean eraikitzerakoan langilegoa ere irizpide iturritzat hartuko da.

IV. Estrategia, hiru gune kontuan izanik

Ekintzak denboraren arabera antolatzen baditugu hiru esparru bereizi ditzakegu, “lehengoa”, “oraingoa” eta “gerokoa”. Gerokoa, gizarte eredu eta erronka berriak susmatuz oraingoa eraldatzen eta norabide bat ematen lagunduko du. Hiru gune hauek bata besterekin era dinamiko batean lotuta ikusten ditugu.

- **Lehengoa ikasteko:** Eusko Ikaskuntzaren historia luzea eta oso aberatsa da. Eskarmentu hori aztertzea eta gaur egun zer garen ulertzea ezinbestekoa dugu. Gaurko kokapena eta norabidea finkatzeko beharrezkoa den ezagutza baliagarri bat dugu.
- **Oraingoa ustiatzeko eta hobetzeko:** Esparru honetan lau arlo nagusi ditugu, ikerketa eta ikasketak, programa enblematikoak, argitalpenak eta hedakuntza, eta Fundazioak.

Ikerketa eta ikasketa aktibitateak Euskal Herriko gizarte eta kultura ezagutza sortzeko bururatuak izan dira. Hamabost Zientzia Sailtan daude zatituta. Diziplina anitzeko ikasketak sustatuko ditugu eta osagarri bezala geroko zientzia arlo edo ildo estrategikoak aukeratuko ditugu.

Eusko Ikaskuntzaren ardatza dira Sailak, Sailen bitartez parte hartzen baitute bazkideek. Beraiek dinamizatzea izango da estrategia berria hausnartzerakoan kontuan izango den puntu bat.

Interesgarria, oso, litzateke Eusko Ikaskuntzak ikerketa lerro batzuk aurrera eramatea, besteak beste, kudeaketa eta kultura politikak, kudeatzeko eta sortzeko modelo berriak, kultura sektorearen gizarte erantzukizuna eta kulturaren gizarte balioaren ageriketa.

Programa enblematiko bereziak bermatu, eta proiektu berrizorro bat eratu. Benetako Aurrerapen Iraunkorra (BAI) izenekoaren gisakoak bultzatu beharko ditugu, parte hartze handia eta sakona ahalbidetuz, guztiak plan estrategikoaren ildoei jarraituz (euskara, lurralde marka,...)

Argitalpenak eta hedakuntza Eusko Ikaskuntza komunitate zientifikoan eta euskal gizartean azaltzeko bide garrantzitsu bat bezala ikusten dugu. Argitalpenetan Eusko Ikaskuntza Marka bat ezarriko dugu, batik bat RIEV, Fuentes Documentales Medievales del País Vasco eta Euskonews aldizkarietara – hiruak programa enblematikoak– eta ohiko gainerako agerkariei.

Euskomediaren zeregina estrategikotzat jotzen dugu. Gaur egun denok ezagutzen dugu e-El indartsu baten garrantzia gure ikurra munduan kokatu nahi badugu.

Eusko Ikaskuntzak **hiru Fundazioekin** du zerikusi zuzena. Nahiz bakoitzak bere zeregin autonomoa izan derrigorrezkoa da koordinazioa eta Lehendakaritza etengabeko sustapena.

Euskomedia tresna garrantzitsu bat da Eusko Ikaskuntzaren hedakuntzarako. Gainera bere gaitasunak beste bezero batzuentzako ere baliagarriak dira eta bide horretatik joaten saiatuko gara.

Asmoz irakaskuntza negozio eredu berri bat da eta eremu horretarako aukerak ustiatzea izango da gure eginkizuna.

Ezin gara ahaztu **Joxemiel Barandiaran Fundazioaz**, nahiz eta beste ezaugarri ezberdinak izan.

Erakundearen komunikazioa: Eusko Ikaskuntza Euskal Herriaren aurrerakuntza bultzatzen duen Elkarte da eta Herria aintzakotzat hartzen duten guztiek har dezakete parte gurekin.

Horregatik, kandidatura honek erakunde-komunikazioa izango du landu beharreko beste arlo bat. Ez dago aurrera egiterik, bai estrukturalki baita egitasmo bakoitzari begira ere, behar bezalako komunikazio-lerro egokirik gabe. Ohiko formatuak eta egungo formatoak (sare sozialak eta mundu digitalaren aukera guztiak) ere erabiliko dira Eusko Ikaskuntzaren izena eta izana, dagokien mailan jartzeko. Multimedia baliabideak erabat beharrezkoak ditugu eguneko gizartearen, eta Eusko Ikaskuntzak bere edukioak egokituko ditu etengabe XXI. mendeak eskatzen duenera.

- **Geroa esploratzeko eta hausnartzeko:** Diziplina anitzeko talde eranginkor bat, gizartearen eta euskal herriko kulturaren bilakaeran eragin sakona izango duten behar eta joera nagusiak antzemateko.

Etengabeko gogoeta honen ondorioz programa enblematikoak edo ikasketa proiektuak aukeratu eta abian jartzeko.

Modu berean, oso egokitzat jotzen dugu gure kandidaturatik, Eusko Ikaskuntza eztabaida eta hausnarketa prozesu sakonen aitzindaria izatea. Argi dorre bat izan beharko luke gure Elkartek, Euskal Herriko kultura erakundeentzat, amankomuneko betebehar oraindik ez konponduerantz eman ahal izateko. Horregatik, aipamen gisa, hona hemen ideietako batzuk: finantzaketa (dirulaguntza edo pribatizazioa?); mezenazkoaren legea; jabetza intelektuala; publikoen eta premien gaineko azterketa; kultura berrikuntza; ondare digitala zaintzea eta iraunaraztea; azpiegiturak eta zerbitzu konpartituak; kulturaren ekonomia inpaktua eta dimentsio ekonomikoa; kulturaren marketina; euskara bera; eta lurralde marka.

Hiru gune estrategiko horiek kontuan edukiz, hausnarketa estrategikoari helduko diogu, modu zabalean eta lehen bait lehen. Eusko Ikaskuntzan errealtatea diren sentsibilitate desberdinen arteko batuketa da kandidatura honen asmoa, eman beharreko urratsak egoki eta denentzako interesgarriak direla egiaztatzeko. Batzorde, Sail eta bazkideen artean ahalik eta jende gehienak parte har dezan, epe labur bat zabalduko da, asmo hori ahalbidetzeko.

V. Ikerketa, ikasketa eta argitarapen kalitatea

Eusko Ikaskuntza ikur bat da, pertsona zientzialari ospetsu askok garatutako ikurra. Gaur egun, gizarte osoan eta batipat zientzia munduan kalitatea eta zorrotasuna ezinbestekoak dira erreferente izateko.

Horregatik, eta denetariko sentsibilitate eta inplikazio mailak direla kontuan edukiz, kalitatezko ekoizpena izango dugu gure lan ardatza. Kalitatea zerbitzuetan, kalitatea hedakuntzan, kalitatea –oro har– egitasmo guztietan, apaleak izanik ere.

Gure kandidaturatik euskal, estatu zein europar esparruetako mailan, elkarlanean garaturiko egitasmo lehiakorak bultzatuko dira. Horretarako, modu bereziz, Sailen parte hartze aktiboa eragingo dugu.

VI. Beste erakunde eta eragileekin elkarlanerako harreman sendoak garatu

Gaur egun, bai Euskal Herrian bai atzerrian, ekosistema oso aberats batean kokatzen gara. Horien artean, instituzioak, enpresak, unibertsitateak, ikerketa zentroak eta gure antzeko beste erakundeak aurkitzen ditugu.

Orain arte modu biziz garatutako harremanak –unibertsitateak, udalak, kultura elkarteak...– areagotzea izango da kandidatura honen erronketariko bat. Baina ezin gara horretan geratu eta aurrera begira ihardutea dugu asmoa, sarea hobetuz eta denon arteko inplikazioa bultzatuz.

VII. Euskarri ekonomikoa sendotu

Ezinbestekoa da Eusko Ikaskuntzari sostengu ekonomiko duin eta jarraikia eskaintzea. Horretarako, erakunde publikoen laguntzaz ez ezik, bazkideen eurenaz eta elkarte pribatuenaz ere baliatu beharko da. Garaiak aldatu egin dira eta finantzatzeko zailtasunak, epe labur eta ertainean, bederen, arinduko ez direnez gero, Eusko Ikaskuntzaren lan jardueraren eskema egokitu egin beharko da, zorroztasunez.

Ekimen pribatura jo ahal izateko Eusko Ikaskuntzak egitasmo lehiakorren premia du, gero eta handiagoa. Horregatik, kandidatura honetatik bultzatuko da ikerketa eta lan aplikatuaren zorroztasuna.

Euskal Herriko erakunde publikoekiko harremanak sendotzea dugu xedea, eta horretarako, Eusko Ikaskuntzak euskal administrazioekin bere egunean sinatutako akordio markoari sekulako garrantzia ematen diogu. Nafarroako Gobernuarekin ditugun erlazioak ere izango dira gure helburua. Eta Ipar Euskal Herriko erakundeekin behar bezalako lan esparrua kontsolidatzen ahaleginduko gara.

Eusko Ikaskuntzaren eta berak sortutako Asmoz eta Euskomedia Fundazioekin den lan markoa arin, garden, malgu eta eraginkorra izan beharko da, indar sinergikoei behar bezalako etekina ateratzeko.

Donostia, 2012ko ekainaren 25ean

Kandidaturaren izenean:

Iñaki Dorronsoro Plazaola



EUSKO IKASKUNTZA	
2012 EKA. 26	
SARRERA - ENTRADA	IRTEERA - SALIDA
N.º139.....Zbka.	N.ºZbka.